


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,4 igo dira 2008ko ekainean

Azken hamabi hilabeteetan (2007ko ekainetik 2008ko ekainera) eraikuntzaren kostuak %7,7 igo dira.

EUSTATEN datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren kostuen indizeak %0,4ko igoera izan du 2008ko ekainean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %7,7raino igo da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



2008ko ekainean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,5eko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta obra zibilaren azpisektoreek bilakaera ezberdina izan dute: eraikuntzak %0,3ko aldaera izan du aurreko hilabetearekiko, eta obra zibileraiko lehengaien kostuek %1,0eko igoera izan dute. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaerari dagokionez, bata bestearengandik urruntzen ari dela egiaztatu da: eraikuntzako lehengaien kostuak %7,6 igo dira, eta obra zibileko lehengaien kostuek %9,7ko igoera izan dute.

Ekainean prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, petrolioaren birfinketan (%4,0), metalurgian (%1,7) eta material elektrikoan (%1,1) kontsumitutako lehengaietan eman da. Aitzitik, hurrengo sektoreetan prezioak jaitsi egin dira: energia elektrikoa eta gasa (-%0,4), mineral ez-metalikoak (-%0,1) eta material elektronikoa (-%0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: petrolioaren birfinketa (%18,9), mineral ez-metalikoak (%15,2), energia elektrikoa eta gasa (%11,9)

eta ura (%11,4). Bestalde, ondoren ematen diren ataletako lehengaien prezioak urte batetik bestera (2007ko ekainetik 2008ko ekainera) gutxitu egin dira: material elektrikoa (-%3,0), zuraren industria (%2,4) eta makinak (%2,5).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA	2008KO EKAINA
--	----------------------

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	116,5	0,4	7,7	5,9
ERAIKINAK	115,9	0,3	7,4	5,5
OBRA ZIBILA	119,1	0,7	8,8	7,3
LEHENGAIEN KOSTUA	116,6	0,5	8,1	5,9
ERAIKINAK	115,7	0,3	7,6	5,4
OBRA ZIBILA	120,0	1,0	9,7	7,7
LAN-ESKUAREN KOSTUA	116,6	0,0	6,3	6,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es